



**2018KO LEHEN HIRUHILEKOKO EMAITZAK**



2018ko apirilak 24

- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Emaidza-kontu bateratua
- Aurreikuspenak

Kontratuen **luzapenak, barneko merkatua eta filialek** lortutako adjudikazio berriak izan dira kontratazioaren oinarriak



Honako hauek izan dira 2018ko lehen hiruhilekoan sinatutako eta eskarien zorroan jasotako kontratu nagusiak:



Napoles (Italia)



Gasteiz (Espainia)



Autobus hibrido/elektrikoak (Espainia)

Gasteiz hirirako unitate berriak kontratatu izanari, Napoles hirirako lortutako enkargu berria gehitu behar diogu; izan ere, azken hau 2017an material mugigarria eskuratzeko sinatutako kontratuaren luzapena izan da.

Bestalde, hiri-ingurunerako autobus hibridoak eta elektrikoak diseinatzeaz eta hornitzeaz arduratzen den filialari, Vectiari, eskatutako proiektu ugariak, azken urteotan CAF Taldeak garatu duen teknologiak arrakasta izan duela islatzen dute.

Horrez gain, aipatu beharrekoak dira zerbitzuekin, MiiRArekin eta beste negozio-lerro batzuekin lotutako kontratazioak eta abian dauden proiektuetan egindako beste doiketa batzuk (plusbalioak, minusbalioak eta bihurtetako doiketak batez ere).

Era berean, 2018ko apirilaren 17an, Bartzelona hirirako metro-unitateen hornikuntzaren kontratua sinatu da.

<sup>1</sup> Honela lortutako kontratazioa: (Aldi-amaierako zorroa – Aldi-hasierako zorroa + Aldiko salmentak). Kontratuen sinadura hartu da eskarien zorroan aitortzeko irizpide gisa.

<sup>2</sup> Zifra horrek ez ditu jasotzen kontratatutako proiektu batzuek jasotzen dituzten aukera gehigarriak.

(jarraipena)

## Napoles (Italia)

Napoles hiriak CAFekin 2017an sinatu zuen kontratuaren luzapeneko lehen aukera gauzatzea erabaki du. Unitate horiek oinarritzko kontratuak hasiera batean jasotzen zituen 10 unitateei batuko zaizkie, zeintzuk gaur egun, CAFeko instalazioetan dauden, fabrikazio-prozesuan.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 6 kotxedun 2 unitateren hornikuntza



## Gasteiz (Espainia)

Arabako hiriburuak tranbia berrien hornikuntza egotzi dio CAFi. 2008an tranbien lehen linea inauguratu zutenetik hirian zirkulatzen duten beste 11 unitateei batuko zaizkie horiek. CAFen URBOS plataforman oinarritutako tranbiak dira; % 100ean zoru baxukoak eta bi noranzkotakoak.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 7 moduluko 3 tranbien hornikuntza
- Gainera, beste 3 unitateren aukera jasotzen du kontratuak



(jarraipena)

## Autobus hibridoak – elektrikoak (Espainia)

Gasteiz eta Las Palmas hiriek (besteak beste) eta Bartzelona probintziako udalerrri batzuek CAF Taldeko filiala den Vectiari egotzi diote autobus hibridoak eta elektrikoak gamako ibilgailuen hornikuntza. Kasu batzuetan, kontratua hainbat urterako ibilgailuen mantentzearekin osatzen da.



## Bartzelona (Espainia)

2018ko apirilaren 17an, Bartzelonako Metropolitiko Garraioen enpresak (TMB) CAFekin sinatu du hiriko metro-sarerako tren-unitateak hornitzeko kontratua. Unitate berri horiek aurretik CAFek hornitutako 100 unitate baino gehiagoei batuko zaizkie eta lanegunetako puntako orduetan edukiera % 20 handitzea ahalbidetuko dute. Kontratua ez da jaso 2018ko lehen hiruhilekoaren itxierako eskarienezko zifra.

Honako hauek biltzen ditu proiektuak:

- 5 kotxedun 10 unitateren hornikuntza




# Eskari-zorroa



Eskarien zorro handi horrek enpresaren **hazkunde-zikloa** bermatu du

Zorroa, guztira (M€)



2018ko martxoaren 31n, **eskarien zorroa** 5.966 milioi eurokoa da; hau da, 2017ko salmenten 4,0x-koa.

Zorroak ez du jasotzen 2018ko martxoaren 31ren ondoren egindako kontratazio irmoa (75 milioi euro baino gehiagokoa):

- Metro-unitateak Bartzelona hirirako

<sup>1</sup> 2018ko hiruhileko bakoitzeko Zorroa / Salmentak ratioa, 2017ko urteko salmenta-zifraren arabera kalkulatuta.

# Emaizta-kontu bateratua



(mila eurotan)

	1.HH 2018	1.HH 2017	Ald. %
Negoio-zifraren zenbateko garbia	439.218	340.022	%29
EBITDA	44.379	43.301	%2
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(10.032)	(9.552)	%5
EBIT	34.347	33.749	%2
Finantza-emaizta	(14.779)	(19.125)	(%23)
Zergen aurreko emaitza	19.569	14.624	%34
Irabazien gaineko zerga	(7.739)	(5.329)	%45
Zergen ondorengo emaitza garbia	11.830	9.295	%27
Kanpoko bazkideen emaitza	(277)	(269)	0
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	12.106	9.564	%27

2018ko lehen hiruhilekoaren amaieran, **negoio-zifraren zenbateko garbia** 439.218 mila eurokoa da; hau da, 2017ko aldi berekoa baino 99.196 mila euro (% 29) handiagoa. Industria-jarduera handiagoa izanak eragin du, batez ere, igoera hori.

Salmenten banaketa geografikoak agerian utzi du, beste behin, CAF Taldearen jarduerak duen nazioarteko proiektzioa. 2018ko lehen hiruhilekoan, **nazioarteko negozioa** Taldearen negozio zifraren % 90,1 izan da.

2018ko lehen hiruhilekoan abian dauden **fabrikazioko proiektu nagusiak** aldirietako eta eskualdeko trenen arloetakoak dira. Horrekin lotuta, Erresuma Baturako proiektuak nabarmendu behar dira eta, bereziki, hauek: Northern eta Transpennine frankiziak, eta Caledonian Sleepers frankiziarako kotxeak. Era berean, aldi honetako salmentetan ekarpen esanguratsua egin dute Holandako NS operadorearentzako eskualdeko unitateek eta Mexiko DF eta Toluca arteko linearako aldirietako trenak.

# Emitza-kontu bateratua



(mila eurotan)

	1.HH 2018	1.HH 2017	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	439.218	340.022	%29
EBITDA	44.379	43.301	%2
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(10.032)	(9.552)	%5
EBIT	34.347	33.749	%2
Finantza-emitza	(14.779)	(19.125)	(%23)
Zergen aurreko emitza	19.569	14.624	%34
Irabazien gaineko zerga	(7.739)	(5.329)	%45
Zergen ondorengo emitza garbia	11.830	9.295	%27
Kanpoko bazkideen emitza	(277)	(269)	0
Sozietate nagusiari egotzitako emitza	12.106	9.564	%27

**EBITDA**, 2018ko martxoaren 31n, 44.379 mila eurora iritsi da; urtetik urterako igoera, beraz, % 2koa izan da.

Aldi horretako **finantza-emitzak** 14.779 mila euroko gastua ekarri du eta, horrenbestez, 2017ko aldi berekoa baino % 23 txikiagoa izan da. Batez ere, Brasilgo proiektuei lotutako finantza-karga txikiagoak ahalbidetu du hori.

2018ko martxoaren 31n, **Zergen aurreko emitza** 19.569 mila euroko irabazia izan da; hau da, 2017ko aldi berean izandako irabazia baino % 34 handiagoa.

**Zergen ondorengo emitza garbia**, 2018ko martxoaren 31n, 11.830 mila euroko irabazia izan da; hau da, 2017ko aldi berean izandako irabazia baino % 27 handiagoa.



# Aurreikuspenak



## Enpresak aurreikuspenei eutsi die:

- Negozio-zifrak bi digituko igoera izango du 2018an eta horren oinarria azken ekitaldietan izandako kontratazio maila altua izango da.
- Hurrengo ekitaldiei dagokienez, irabazian goranzko joera honako hauei esker:
  - a) Jardueraren igoera eta, batez ere, Europako fabrikazio-lantegietan
  - b) Kontratazio-marjina historikoekin lerrokatuta dago
  - c) Eskarien zorroan gauzatze-arrisku txikiagoa dago
  - d) Lanen bikaintasuna eta eragingarritasuneko programak:
    - Hobekuntza fabrikazioaren eta industrializazioaren kudeaketan
    - Optimizazioa hornitzaileen lanean kalitateari eta entregei dagokienez
    - Globalizazioa erosketetan eta kudeaketaren hobekuntza
    - Inbentarioaren kudeaketa eragingarria
- Gaur egungo eskarien zorro historikoari eusteko helburua. Horren guztiaren oinarria 6.000 milioi euro baino gehiagoko eskaintza irekien bolumen egonkorra da.
- 2020rako ildo estrategikoak abian daude honako helburu hauek kontuan hartuta: Hazkundera, Eragingarritasuna eta Digitalizazioa.



Dokumentu hau berariaz informazioa emateko sortu da.

Dokumentu honetan jasotako informazioa ez dute egiaztatu hirugarren independenteek; beraz, ez dago berariaz edo inplizituki inolako bermerik bertan jasotako informazio, iritzi edo adierazpenen inpartzialtasunaren, zehaztasunaren, osotasunaren edo zuzentasunaren inguruan.

Dokumentu honetan, gerora begirako aurreikuspen eta zenbatespenei buruzko adierazpenak jaso daitezke, baina ez dira etorkizuneko errendimenduaren edo emaitzen bermetzat jo behar; izan ere, arriskuak eta zalantzak egon daitezke tartean, eta horietako asko ez daude CAFen kontrolpean. Beraz, baliteke emaitza errealak zeharo ezberdinak izatea adierazitakoekin edo aurreikuspen eta zenbatespen horietan era inplizituan jasotakoekin alderatuta.

Horrenbestez, ez dira inola ere interpretatu behar CAFen akzioak erosteko, saltzeko edo horietan parte hartzeko aholku edo gomendio gisa. Era berean, helburua ez da edozein produktu edo zerbitzu finantzario eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua sinatu den egunean eman dira, eta aurretiaz ohartarazi gabe egiaztatu, amaitu eta aldatu behar dira. CAFek ez du bere gain hartzen zenbatespen eta aurreikuspen horiek jendaurrean eguneratzeko edo aztertzeko betebeharra, bai informazio berria dagoenean, bai etorkizuneko beste ekitaldi batzuetan, edota beste egoera batzuetan.

Hirugarren batek dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hartutako edozein erabaki berariaz eta bakarrik haren erantzukizuna izango da. Hala, ez CAF, ez bere filialak, ez arduradunak ez dira izango sor daitezkeen kalteen erantzule. Halaber, ez dute inolako erantzukizunik hartuko dokumentu honen edo bere edukiaren erabilerarekin lotuta.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira, eta ezin izango da kopia, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (guztiz edo zati batean), baldin eta CAFek aurretiaz idatziz adostasuna ematen ez badu.